

UGT SINDIKATUAK PROTESTEI UKO EGIN DIE ETA ENPRESAREKIN NEGOZIATZEN ARI DA

Gaur hasiko da CCOOk eta CGTk Renfen deitutako 24 orduko greba

■ Arratsaldeko 15:00etan hasi eta biharko 15:00ak arte iraungo du CCOOk eta CGTk deitu grebak

■ Renferen arabera, puntako orduetan aldirikoen %75 beteko da gutxieneko zerbitzuekin

■ Gainerako orduetan, gutxieneko zerbitzuekin aldiriko bidaien %50 edo %60 beteko dira

Agentziak / Madril

RENFEK egindako azken eskaintzari uko egin ostean, CCOO eta CGT sindikatuek gaurtik bihar arteko greba deialdiari eutsi diote. Horrela, gaur 15:00etan hasiko da greba eta bihar ordu berean amaitu. Grebara deitzen duten bi sindikatuak ez daude ados enpresarekin aurkeztutako azken eskaintzarekin.

Enpresako zuzendaritzaren eskaintza horretan, soldata pizgarrien sistema berriak 1999ko aurrekontutako 700 milioi pezetako bermea jasotzen da. Pizgarriak produktibitatearen hobekuntzarekin lotuta egongo lirake, eta 13.000 langileri eragingo lieke. CCOO sindikatuarentzat, ordea, 700 milioi pezetako funts hori engain» bat da.

CCOOK argitu du sindikatuak eskatzen duena ez dela 2.400 milioi primetarako fondo bat, ordainketa sistema berri bat baizik. Zuzendaritza sistema hori betetzera bultzatuko lukeen bermea izango litzateke 2.400 milioi pezetako kopuru hori. CCOOk negoziatzeko jarrera irekia duela adierazi du, eta azpimarratu du zuzendaritzak ez dituela curren ordezkariek elkarrizketatara deitu abenduaren 9an negoziazioak hautsi zirenetik.

UGT sindikatuak, berriz, abegi ona egin dio zuzendari-



ARTXIBOKOA

Gaur hasitako greba bihar arratsaldeko 15.00etan amaituko dute CCOOk eta UGTk.

tzak aurkeztutako prima sistema berriari. Herenegun bildu ziren sindikatu horretako ordezkariek eta Renfeko zuzendaritza, hiru orduz. Negoziaziorako abiapuntu egokia dela adierazi du UGTk. Sindikatu horrek uko egin dio protestekin jarraitzeari, eta ez du bat egin CCOOk eta CGTk deitutako 24 orduko grebarekin, nahiz eta hasieran gel-

dialdiak egin zirenean haieran parte hartu zuen.

Gutxieneko zerbitzuak

Grebak cargin ditzakeen kalteak saihesteko enpresak ezarriko dituen zerbitzu minimoak hauek izango dira: Aldiriko edo hurbileko trenetan bidaien %75 beteko dira puntako orduetan (15:00etatik

16:00etara eta 18:30etatik 20:20ctara gaur, eta bihar 06:00etatik 09:00ctara, eta 14:00etatik 15:00ctara). Gainerako orduetan bidaien %50 eta %60 bitartean beteko dira. Linea handietan, berriz, norabide bakoitzcan tren bat izango da guzuzenez. Gauza bera gertatuko da eskualdeetako bidaiak egin go dituzten trenekin.

Nazioarteko dibisa merkatuetan egonkortasuna nahi du Japoniak

■ Keizo Obuchi euro, dolar eta yenaren arteko parebtasuna eskatuko du Frantzia, Italia eta Alemanian

Agentziak / Tokio

GAUR hasiko du Keizo Obuchi Japoniako Lehen ministroak Frantzia, Italia eta Alemaniara egingo duen bisita. Herrialde bakoitzarckin utabaidatu behar dituen gaiez gain, helburu ekonomikoak ere izango ditu agintari japoniarrak bidaia honetan. Nazioarteko dibisa merkaturatuetan egonkortasun gehiago bilatzen du, besteak beste, Japoniak. Proposamenean dolar-curoven trinomio batiasotzen da. Hiru dibisen trukerako banda finkoko sistema bat nahi dute Japoniak, hiruren arteko fluktuazioak mugatzeko.

Argindarraren liberalizazioak 17.640 euroko kostuak eragingo ditu EBn

Agentziak / Madril

INDUSTRIA sektoreek eta Europako Batasuneko gobernuak egindako aurreikuspenen arabera, argindarraren merkatuetan liberalizazioak 17.640 milioi euroko kostuak sortuko ditu sektore horretan. Generazio planta berrien eraikuntza eta konpetitiboak ez diren alorretan izango dira gastu horiek. Gobernuak garrantzizko kontsumoaren gainera tasa baxekin estaliko dira galarak

400 milioi pezetako kaltea

■ RENFEKO zuzendaritzak salaketa gogorak egin dizkio CCOO sindikatuari. Gaurtik biharrera bitartean deitutako grebak merkatuetako diru sarreretan 400 milioi pezetako galera ckarriko duela adierazi du zuzendaritzak eta, hain zuzen, galera hori produktibitate-

ratioetan izango dela azaldu du. Ondorioz, Renferen arabera, produktibitatearen lotutako soldata pizgarrien kontrakoa da greba. Gatazka giro batek ez luke produktibitate indizea kaltetuko soilik, arriskuan jarriko bailuke enplegu maila cre. Gainera, CCOOren jarre-

rak Renfen hasitako modernizazio prozesua oztopatzen du», adierazi du Renfek. 24 orduko grebak bi eguneko kaltea sortzen duela dio Renfek. Gainera, gaueko zein eguneko zerbitzuetan egiten du kalte.

Zuzendaritzaren arabera, CCOOk negoziazioari egiten-

dion mespretxuak oinarri politikoa du, otsailaren 25eko hauteskunde sindikalek zuzenean lotuta dago. Horrez gain, Renferen ustez, sindikatu horren barnean dauden jka-mikek zaildu egiten dute negoziazio kolektiborako bidea zabaltea.